

AUR-GALTZEA

Garrantziz jantzia dugu gai au, eta gaurkotasunez. Izparringiak eta, ez ote dabilta olako zerbait idazten, aizatzen? Ezer egiten al dugu, ordea, errazoi gabe? Orrenbeste idazten danean, beraz, ba-da zerbait baztarretan. Ur-zarata danean, ura doa ibai beera. Ez da urrutira so-egin bearrik, bertan geure arteko erti ta uri txiki ta aundietan, aur-galtze kasuak ditugunik ezin daikegu uka.

Zarataka

Oraintsu oraindik guztiok dakigu nolako iskanbilla atera zuten Bilbao'n 11 emakume aur-galtze egiñak zirala bide. Nolako izen-biltreak, nolako aitormenak! Zortzireuneraiño omen ditugu Euzkadi'n, naita, beren gogoz, aur-galtzea egin dutenak. Lanbide guztietakoak, izan ere: legelariak, sendalariak, sindikalistak, politikuak, ziñegotziak, irakasleak, kazetariak, lanbidekoak, ertilariak, abeslariak... Danetatik, antza danez. Beren izen-abizenak ere eman zituzten, naiz-ta gero batzuk eurak ez zutela olakorik esan nai, adierazi.

Orrela, aur-galtzea eskatuz, ortarako eskubidea eskatuz noski, izen-biltze errimea egin ondoren (gu bai zaratatsuak!), 11 emakumeren aurka egiten zuten auzirako Epaikariari eskuratu zioten 18.300 emakumek izenpeturiko orri-txorta izugarria, azken illabete auetan Euzkadi'n bildutako firmakaz. Eta, jakiña!, gizonezkuak ere esku artu bear emakume oien artean, elizako ibildeun baten bezela; Bizkaiko 48 lege-gizonek, Kruzesetako 90 sendalarik eta 300 irakaslek ere berdintsu.

Eta dena txintxo-txintxo egitearren, erabaki-azalpena ere bialdu zuten. Onela zioan: «Nik nahita abortatu dut: Gu, Euskadiko emakumeok, Estatu espainoleko beste emakumeekin, abortatzeko (aur-galtzea ezta ain polita!) eskubidearen alde gaudela adierazi nahi dugugueuk libreki hautaturiko amatasun baten alde gaude. Eta honek dakartzen ondorio penalak ezaguturik, nahita abortatu dugula nahi dugu aditzera eman». Ondoren datoz bat-ere lotsa gabe berreun bat emakumeren izenak.

Iragarrita zegoen auzia etzan ospatu, bi auzipetu emakume ez bait ziran aurkeztu. Epe barik atzeratu zan auzia berriz ikusiko zan eguna.

Biaramonean Gasteiz, Donosti eta Bilbao'n batzarrak eta protesta ibilteak egin ziran kalerik kale. Bilbao'n batez ere, Bizkaiko Emakume Batzarrak deituta, eta ezkertarrak lagunduta, agerkunde aundia, millaka ta millaka lagunena —andrazkoak geienak— ospatu zan «amnistia emakumentzat» eskaturik. Onako sloganak ere garraxikatu zituzten: «Nik ere abortatu dut»; «Sexutasuna ez da amatasuna!»; «Espaigaitzazute, abortatu dugu» «Zuok, aur-zaleok, zarete izutzaille!»; «Ernal aurkakoa gizonentzat». Bertso bikote txairoak ere ba-zetozten: «Euskadi matxista /inoiz ez sozialista». Kasilla'tik Arenal'era izan zan ibillaldia. Amaitzean, Emakume-Alderdikoen ereserkia, «Zutik emakumeak» abestu zan.

Zigortua

Azpian zerbait danean, lurrak ikara egiten. Emen ba-da gaitzik onela zarata egiteko. Zer eskatzen dute zaratok? Aur-galtzea, abortua. Eta zer dugu aur-galtzea? Euskal itzak argiro adierazten digu. Sorpenaren ekarria, ots, umekeia, garai aurretik aterazi naiz botatzea. Lege aldetik begiratu ezkerro, alan ere, adiera zabalagoa du, eta zigortua ez da bakarrik aur-gaia elgaitz dala bota naiz erauztea, baita zigorgarri da norberak naita amaten sabel barruan ernaria ezereztea ere.

Aintziña etzuen zigorrik aur-galtzeak Grezia'n, ez Erroma'n, ez Sortaldeko erresumetan. Elizak ala ere, nairik izan ezkerro, beti zigortu izan du egintza ori; txartzat, makurkeririk aundienetarikozat euki izan du. Orrez gain, nazio guztietako legeak zigor-azten dute irizpide zabalagoari jarraituz bada ere. Umekia ez da oraindik benetako pertsona; orixegaitik legeak geiago babestu bear du etorkizun

dan gizakia, baita amaren bizia ta osasuna ere, erraietako umea galtzean arriskurik izan ez dezan. Legeak baita babestu bear ditu amaturrak, aberriaren interesak zaintzearren ere, jaiok gutxitu ez daitezzen.

Aur-galtzea zigorgarri da, sorrera unetik umekeia egozten asi arte, eta da, ernalzaro guztian; berdin da bizikor izan, nai ez. Legeak, zigorra ezartzerakoan, erabilli diran bideak eta abar, maillaz mailla, gogotan izan oi ditu. Izan ere, merezi du zigorra gaizkakeri onek.

Gizaki berria

Noiztik bizi ote gizaki berria? Noiztik esango ote diogu «aur»? Gai zabala noski eta emen ez gara, zuzenean beintzat, or sartzen. Gizakia ereiten, Jainkoak indartzen, esan dezakegu. Paul Deunak onan: «Zuk ereiten duzuna ez da erneko dan gorputza, garau utsa baizik. Eta Jainkoak gorputza ematen dio, Berak nai duanez; azi bakoitzari dagokion gara» (I Korint., 15, 37-38).

Sortzeko bear diran bi aziak elkartu ta gatzatzean, ernemintzen asten zaizu muskil-bizia, eta, bere amagandik artu arren beroa ta janaria, beste gizaki bat osotzen du, ama ez bezelakoa, berdineza. Eta bein ortaroko ezkerro, ba-du odola, ba-ditu bere zirkiñak; aurtxoaren biotzak bere estutze-nasaitzeak dauzka, eta odol-bideak; zerok, gainera, amarenak baiña bizkorragoak dira. Amaren laguntasuna bear du, baiña barne-erakundea eta bizitza bere-bereak ditu; esan dugu: amaren berotasunik gabe il egingo litzateke; amagandik artzen duen janariarik ez ba'lu ere, berdintsu; ori bear du, baiña osterantzean, sortu ta laster, berea du bizia.

Ernaltzetik daukagu, egin-egiñean ere, bizi-asiera; gero dator gorputziak eratzea eta kanpotiko erak, esku-oin, buru, biotz eta abar, bakoitza bere bidetik doa azi ta aundituz, amagandiko janariari esker. Bizi-asiera, baiña, ernaltzean dago; gaur egin oi diran bizi-oiñari buruzko batzarretan, maiz aitortu oi da orixe berori. Alemaniarriko protestanteak, adibidez, 1971'gnekko urtarrillaren 14'an euki zuten batzar ondoren, au iragarri zuten: «Gaur-eguneko zientzi-jakitatean oiñarriturik, bizi-lenak ernaltzean dauko asiera. Beraz, bizi-azia deusezten edozein esku-sartzek, egiten dagoen bizi bat iltzen du».

Fisiologuak ernamiña (embryon) esaten diote sortu ta bost illabetera artekoari eta umekia (foetum) andik aurrerakoari. Lenengo gaia

ta gero gaiak artzen duen itxura, era) eta itxura au barne-arnasak ematen diren 30' ta 40'garren egunera gizakia eta 80'garrenera emazteak. Aristotele'n iriziz: jakintsu onen jarraille dituzu, baita, Alkibiades, M. Ligorio, Rosmini eta Gedda biologuak; beste batzuk soziologo bizi izatea naingo dute; Elizako guraso askok eta gaurko sendagillerik ez gitez berdin, azken urteotako aurkikundeak ezkerre, biologi aldetik ornamiñak bere bizi-aro berezia du irugarren astetik zortzigarrenean; zaspigarren eta zortzigarren aste bitartean giza-zera gertatzen ariren, buru-azurra, begiak, besotxoak, hernak, beatzak, belak eta abar. Ondoren umekiak du bere aroa, zortzigarren astetik aro arterakoa.

Aur-galtzea eldutako gizakia aurreratzea da, aur-galtzea bertiz eldu gabeko umekia erauztea. Ezin daiteke zuzenean ume-galtzerik egin, naizta ornamiña oinadio bizi gabe dala uste izan. Aur-gai biziduna bada, bizi kentzen diozu berari; aur-gaiak amaren sabelean du babilak bakarrik bizi toki egokia, bere kabia; andik kanpo jartzea egiaz bizi kentzea duzu. Aur-gaiak bizirik ezpada, egitez ez duzu iltzen, baina asmoz bai. Edo-ta asmoak ez al du baliorik?

Eta asmoz obendari dira, naizta aur-galtzerik ez egin, izor dagoalako edo, edari kaltegarriak artu, oinadi ur otzetan sartuta euki, sabela gelegi estutu, lan neketsuak egin, umetokiko mintza zulatu ta jaio amiotikua txuri ta olakoak egiten dituztenak.

Pertsona

Aurra pertsona, noriki bat duzu, ezpirituzko gogoa Jainkoak sortu eta amaren errailetan eratu ta aziz doan gorputz pitinari itsatsia izan daretik; gizaki bat duzu aurra, gizartean ere oinarria duena. Ez du onindik bearkunik eta obligaziorik, ezaguerarik ez duelako, ez da gaurko legea betetzeko ere; baina eskubideak ba-ditu, ingurukoengan beartunak sortzen dituztenak. Jaio ta bizi izateko eskubidea du, zorian maitasuna, laguntza, babesa eskatzen ari da; nor bat denez, jaio aurretik ere eskubideduna duzu.

Orrela da arimak indartzen duenetik; ezta oinadi obenetik egiteko gauza. Aibat eta aibat, erraitio, guras gelditzen dira bizitzatik kanpo. Uri batzuetan, dietenez, jaioz direnak aia! Izugarriak dituzu zenbaketazko zerrendak, estadistikak; eta zientziak egiteko aurrerakuntzak ba'lira bezela, errarako osakariak, jokabide egokiak, gantzuzalduak iragarten dira egunero. Baita erri txikietan ere tamal aundiz!

Aurra galtzeko, orrez gain, norberak ezin duenean, ba-daude esku trebeak; ebaketa arduratsuak burutzen dituzte esku maitekor auek. Baiña ba-dira beste batzuk molde-gabe, sakasta, ez-jakiñak ere, ainbat zauri astun, odol-jario, buruko ta birikietako zain-tapa, aur-ontzi zula-tze, este-urratze ta abar ondorio dakarzenak. Eta guzti onek kontatzen ezin ala eriotza egiten. Aur-galtzea, beraz, gaiztakeri ikaragarria duzu: ezta eskubiderik inondiko agintaritzak, naiz-ta goienengo maillakoa izan, amaren sabelean dagoen errugabe bati bizia kentzeko; aberria salbatzeko ere, ez omen da zillegi aur errugabeari eriotza ematea. Abortatuz, ordea, millaka ume iltzen dira. Bizitzarako bideak ixten zaizkio. Jainkoak naita, lanean ari dan unerik ederrenean, eta amak berak, sortu duenak berak kentzen dio bizia, edo beñik-bein berak gura duelako; bizian barrena zijoanari zakarki ertsi oi zaio bidea.

Erasotzaille?

Ortarako aitzakiz, au ere esan oi da: aurra, oraindik argitara ez dana, erasotzaille dala amarentzat, biurri ta zuzen-gabea izan ere. Egia ote? Etsai bati egiten zaio eraso, gogor; eta aurrak, zu, ama, etzaitu etsai, ez dizu okerririk egin nai; zuk, ordea, bota egin nai duzu zeuregandik. Zuri ez dizu arriskurik ekartzen, ez dizu bidegakeririk oar-gabe ere egiten. Ala zeuk, ama orrek, ez al zenuen sortu askatasun osoz?

Diozunez —orrela gorago aitaturiko agirian—, zeuk «libreki» autatu amatasun baten alde zagoz. Eta orain egotzi, bota nai duzun aurra ez ote zenuen libreki sortu? Atsegiña bai ta ondoriorik ez? Nolako logika duzu ori? Mendirako bidea artzerakoan atzetik datozten zer guztiekin artu bear, naiz txarra dala naiz ona, poza naiz naigabea. Ala maitearen besoetan zegoanean ez ote ziñan libre? Nun utzi zenuen, ba, au edo beste autatzeko aukera? Zuk une aretan buruz jokatu ez zendulako, erraietan daramazun umea ote da errudun? Ez, ez zaizu erasotzaille aur ori. Au duzu egia: zuk naita artua, orain suntsitu opa duzu.

Ba-dugu agindu zorrotz bat: «Ez duzu inor ilko» diosku Jaunak. Olan deadar dagigu kalean eta etxean. Aintziña esan oi zanez, erri-agintariak jaun ziran menpekoak garbitezko: «ezpataren eskubide» zeritzan oni; gaur ez, gaur ez dugu olakorik nai. At eriotz-epaial, didar dagigu. Ori ez da zillegi. Inork ezin dezake, ezta Estaduak ere, inor il. Egia da, olan diogu gaur-egun ao betean, baita liburuetan ida-

tzi ere. Zirgor-azi ditzakegu gaizkiñak, baiña illazi ez. Eta nola jaikitzen zara zu biologiaren beraren aurka?

Umearen Urtea ospatzen da aurten. Makiña bat idatzi da, au dala-ta. Era berean, gure artean beintzat, aur-galtzea eskatzen da kalerik kale. Eta Jainkoak biziaren seaska jarri zuen familian, ez erio-illerra, esan zigun Faulhaber idazleak. Ala ere, illerra ez omen dago gaur urri-ertzean, sukaldean baizik. Esan dugu: inork ez du eskubiderik aurtraren biziari buruz erabakitzeke; ez sendagilleak, ez emagiñak ez duta eskubiderik baiñu elektrukurik, pendulik, zillar-orratzik, ez txaligorik inori agintzeko, ez aolkatzeko; oien arazoa ezta iltzekoa, sendatu ta gaizkatzekoa baizik.

Elizak zer dion

Elizak beti zaindu izan du aurraren bizia, izaten asi zanetik zaindu ere, eta bene-benetan zigor-azi izan ditu aur-galtzera makurtu diranak.

Gogora dezagun emen, naikoa da-ta, Italiar Gotzai Batzarrak 1972'garreneko urtarrillean, esaten zuena: «Jainkoak asieratik dio muga igaro-eziña gizonaren askatasunari: anaiaren biziari zor dion lotsa... Edozein kontzientzi artezi, beraz, biziaren kontrako gaiztakeri legez aurkezten zaio aur-galtzea. Sorpenetik dauka jatorria giza-izate zeatz batek».

Giza-bizi bakoitzak bere izan-zentzua du. Amarentzat izango ditu bere biur-uneak, naigabeak; baiña, etsi-bearrean, gorantz jaso bear dira begiak. Beti bait dugu gain Jainko arduratsuen laguntasuna. Aurraren bizitzan bereziki.

Aita Onaindia